

FAX-A PC-ETAN

PC ordenadore bat edukiz gero, erraza da munduko edozein lekutara dokumentuak edo informazioa bidaltzea eta, noski, jasotzea.

Segundo gutxi batzuk besterik ez dira behar hau egiteko eta ordenadoreari JTFAX plaka jartzea nahikoa izango da aukera hau izateko.

Bestalde, gainerako faksimil sistematik baino dexente merkeagoa da; 100.000 pta. inguru balio bait du.

JTFAXen bidez diskotik nahiz scanner-etik hartutako dokumentuak edota testu-tratamendu, kalkulu-orri edo beste edozein aplikaziok sortutako irteerak transmiti daitezke.

Oso erabilterraza da; programak berak adieraziko bait du, leihoz osatutako menuen bidez, dokumentuak markatzeko, bidaltzeko eta jasotzeko une bakoitzean zer egin behar den.

JTFAXek bi bertsio ditu: bata PCaren busera konektatzen den barne-plaka bat eta bestea ordenadorearen serie irteerari konektatzen zaion kanpo-sistema. Azken hau PS/2 eta eramangarrientzat da egokia.

TESTUA/AHOTSA BIHURGARRIA

Gailu edo tresna berri honek gaztelaniaz eta katalanez funtzionatzen du eta emakume- eta gizaseme-ahotsen artean aukera dezake. Modu elkarre-ragilean egiten du lan eta ordenadorearen pantailan agertzen den edozein hitz edo ikur ahoskatzen du. Testu osoak hitzez hitz edo ikurrez ikur irakur ditzake. Galdera- eta harridura-ikurrei dagozkien intonazioak emateko ere gai da.

Sintetizadorearen soinura ohitu gabeko pertsonekin egindako probetan, %80tan soinua problemarik gabe entzuten zen. Bokal, kontsonante eta hauen arteko konbinazio posible guztien soinua desberdinak analizatu omen dira, katalanean 218 eta gaztelanian 138 erregistratuz.



Soinuak formatzea, anplitude eta intonazioen kodeketa batean oinarrituz ahotsa sintetizatzen duen Philips etxeko PCF 8200 zirkuitu integratu baten bidez egiten da. Azkarrago edo polikiago ahoska dezan erregula daiteke.

Edozein ordenadoretan erraz instala daitekeen txartela da eta arlo askotan aplikagarria: itsuentzat, kutxazain automatikoetan, telefono-zentralitatan, kirol-lehiaketatan, etab.



CLIPPER SUMMER 87, GAZTELANIAZKO BERTSIOA

CLIPPER, dBASE lengoaiaren konpilatzaile-rik ezagunenetakoa da. Azken bertsioak Summer 87 du izena, gaztelaniaz dago, eta Nactucket etxe amerikarrak banatzen du. Produktu hau gestiorako beste software batekin batera saltzen da.

CLIPPER Summer 87, datu-baseen garapenerako sistema eta dBASE lengoaiaren konpilatzailea da aldi berean. Erabiltzaileak CLIPPERen, mihiztadura-lengoaian nahiz C lengoaian definitutako funtzioak sor ditzake. Honez gain goitik beherako aukeraketa-sistema bidez funtzionatzen duten menuak automatikoki sortzeko funtzio berezi bat ere badu.

Hiru dimentsioko taulak eta memo eremuak erabil ditzake. Programa konpilatuak, hots .EXE luzapena dutenak, DOSetik exekuta daitezke zuzenean. Sare lokaletan ere arazorik gabe funtziona dezakete programa hauek; erabiltzaile batek baino gehiagok erabil bait ditzake fitxategi berberak aldi berean.

dBASEIII Plus-ak dituen funtzio aurredefinitu guztiak (EOF (), CHR () etab.) ere erabilgarri egongo dira.

Programa honekin batera banatzen diren beste programa osagarriak hauek dira:

Nactucket Tcols

Programaren garapenerako 273 funtzio ditu. Mihiztadura-lengoaian eginak daude eta memoria minimo bat behar dute. Funtzio guzti hauetako 255 egon daitezke aktibatuta une berean. Beste funtzio batzuk, unitateen gestiorako, disko eta disketeen kontrolerako, inprimagailua eta pantaila konfiguratzeko etab. etarako erabiliko dira.

Documentor

Clipper-en egindako edozein programa dokumentatzeko erreminta ahaltsua dugu. Fluxu-diagramen bidezko analisiak, memoriako aldagaien erreferentzia gurutzatuak eta indize-fitxategien dokumentazioak lor daitezke.

DGE

Grafiko-liburutegi bat da eta Clipper programe-tan zuzenean sar daitezkeen bereizmen altuko 60 funtzio grafiko baino gehiagok osatua dago.



UI

Aplikazio-sortzaile bat da eta dBASE II/dBASE III Plus, Fox BASE nahiz Clipper aplikazioak sor daitezke berarekin.

VISILOG; ORDENADORE BIDEZKO IKUSMENA

Visilog, Noesis elkarte frantsesaren, Frantziako Automatika eta Informatikarako Ikerketa-Insitutu Nazionalaren eta Pariseko Meatze-Eskolaren elkar-lanari esker garatutako ordenadore bidezko ikusketarako programa da. Programa irekia da eta liburutegi zientifiko moduan nahiz monitore elkarreragile baten kontrolpean erabil daiteke. C lengoaian egin dago erabat eta beraz C lengoaiaren konpiladore standard-a duen edozein ordenadoretan erabili ahal izango da. Sarean ere lan egin daiteke. Visilog irudien tratamendu numerikorako eta eszenen analisi-rako erreminta izugarria da; aplikazio industrialetarako garapen- eta ikerketa-zentrueri bereziki zuzendua dago. Objektuen detekzioan, partikula-kontaktetan eta formen eta zonaldeen analisisian sortzen diren arazoak problemarik gabe ebazten ditu, baina honez gain berehala inplementa daitezkeen beste modulu osagarri batzuk ere eskaintzen ditu; ikerketa aurreratuagoen behar espezifikoetara zuzenduak, hain zuzen, hala nola, morfologia konplexua, objektuen azterketa eta kokapena, hiru dimentsioko berre-raikuntzak, ikusmen estereoskopikoa, irudien segmentazioa etab.

Visilog-en aplikazio-esparrua nahikoa zabala da: kalitate-kontrola, analisi mikroskopikoak, etab.